

IZARO IRLA ETA MADALEN EGUNA

Bermeoko kontakizun zaharra

XVIII. mendean Ibarrangelu (oraindik Elantxobe bere mende zegoen), Mundaka eta Bermeo udalerriek auzi txiki bat zuten Izaro Irlaren jabetzagatik. Hiru herriek esaten zuten Izaro euren zela, uhartearekiko gertutasunean (1,3 km Lagatik, bi Mundakaraino...) oinarrituta. Baina nola konpondu auzia?

Auziari irtenbidea bilatzeko asmoarekin Bizkaiko Jaunak ondokoa proposatu omen zuen:

Irlaren jabegoa Arraun-proba bateko saria izango da. Lehena heltzean lortuko du. (*“Háyalo quien primero llegare”*)

Ibarrangeluk ez zuen parte hartu.

Epaileak Elantxobeko zenbait herritar izan omen ziren.

Mundaka eta Bermeo ziren lehian sartuko zirenak. Erreza zen kontua. Arraun-talde bakoitza atera bere udalerritik Izaro irlarantz. Bertara heldutakoan kolorezko zapia altxatu bertaratu direla erakusteko. Horrela lortuko zen Izaro Uhartearen jabetza.

Epaileek proba hasteko agindua eman zuten.

Biak batera atera ziren.

Mundakarrak izan omen ziren lehenak heltzen eta beraz euren koloreko zapia altxatzen.

Baina erronka horretan bermeotar arraunlari batek bizia galdu zuen. Gertaera latz hori konpentsatu nahian-edo, Bermeo hartu zuten irabazletzat.

Mundakarrak, ordea, ez zuten epaileen erabakia hain ondo hartu. Hortik aurrera, Mundakarrak Elantxobeko hiritarrez hitz egiteko *makues* –erderazko malos-jueces- ezizena erabiltzen dute.

Orduz geroztik, hori gogoratu nahirik, udaro, uztailaren 22an, Maria Magdalena Egunean -*Madalen Eguna*-, Bermeoko eta Mundakako alkateak, beste askorekin batera, mahoi urdinez jantzita, Bermeoko portutik atera eta prozesioan doaz Izaro irlarantz.

Irlara heltzean itsasontzia gelditu egiten da eta Bermeoko alkateak teila hartu eta itsasoko uretara botatzen du hau esanez:

Honaino heltzen dira Bermeoko itoinak.

Txistulariek orduan Madalenaren eresia jotzen hasten dira, jendeak ondoko hitza abesten dituen bitartean:

Maria Magdalena

Zeugana nator belaunbiko
Maria Magdalena
Zeugana nator belaunbiko
Belaunbiko jarri bagarik
Hiru meza entzuteko.
La, la, la, la, la, la, la.
Izaro isilian
Magdalen egunean
Erromeri
Egiten da
Urtian-urtian
Txalupakin gaztedia
Ayuntamendu Jaunari
Estropadan laguntzeko
Da jiran gero etorri
La, la, la, la, la, la, la.

Ondoren, ikurrina handi bat jartzen da irlan, eta itsasontziak Elantxoberantz jotzen dute. Bertan, portuaren sarreran, Elantxobeko alkatea bere makilarekin egoten da Bermeoko alkatearen zain. Orduan, Elantxobeko alkateak bere makila, aginte-makila, eskaintzen dio Mundakako alkateari. Horrela, Bermeokoa Urdaibaiko bi ertzeetako portuen (Bermeo eta Elantxobe kaiak) alkate izango da egun batez.

Elantxoben bazkaldu ostean arratsalderantz Bermeora itzultzen dira.

Bermeo kofradiako sirenaren eta ontzietako turuten hotsarekin hartzen dituzte.

Hemendik aurrera Bermeon jarraitzen du jaiak.

Juantxu Ruiz de Velasco eta lagunak

La isla de Izaro (1422-1996)

Urdaibai Basatia Bilduma

Urdaibai Txatxi Kultur Elkarte

Sukarrieta 1996